



Fundación Vasca para la  
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien  
Segurtasunarako  
Euskal Fundazioa

#### DESKARGATU PDF

Entzimak landare, animalia edo mikroorganismoetatik ateratako produktuak dira, baita mikroorganismoen hartzitze-prozesu batetik ateratakoak ere.

- i) Horiek erreakzio biokimiko zehatz bat katalizatzeko gai den entzima bat edo gehiago dituzte, eta
- ii) elikagaiei gehitzen zaizkie, teknologia-xedeetarako, elikagaiaren fabrikazio-, eraldatze-, prestaketa-, tratamendu-, ontziratze-, garraio- edo biltegitratze-fasearen edozein unetan.

Organismo natural guztietan modu naturalean gertatzen diren erreakzio biokimikoak bizkortzen dituzten proteinak dira.

Mendeak dira entzimak erabiltzen direla gazta, ardoa edo ogia bezalako produktuak lortzeko. Gaur egun, elikagaien industrian erabiltzen dira, teknologia-xedeetarako, elikagaien ekoizpenaren edozein fasetan: eraldatzea, prestatzea, tratatzea, ontziratzea, garraiatzea edo biltegitratzea.

#### Elikadura-entzimei buruzko galderak eta erantzunak - AECOSAN

#### Food enzymes - EFSA

## SEGURTASUNA EBALUATZEA ETA BAIMENTZEA

Europar Batasunean erabiltzen diren entzima guztiak ebaluatu eta baimendu egin behar dira. Horretarako, frogatu behar da erabiltzen diren kantitateetan ez direla arriskutsuak eta beharrezkoak direla baimendu diren elikagaietan.

Elikagaien Segurtasuneko Europako Agintaritzak (EFSA)

#### **aurkeztutako eskaera guztien arriskuen ebaluazioak bukatzen dituenean**

#### **Europar Batasunean erabil daitezkeen elikadura-entzimen zerrenda egingo da**

. Zerrenda hori prest egon arte, Europar Batasuneko entzimen erabilera estatu kide bakoitzaren nazio-mailako legediaren araberakoa izango da.

Ordura arte, dakigun gauza bakarra da egingo den Europar Batasuneko zerrendan honako elikadura-entzima hauek agertuko direla:

- **invertasa (E-1103) eta liozima (E-1105)**

- **ardoan erabiltzen diren ureasa, betaglukamasa eta liozima**

#### Baimena lortzeko prozedura

#### Orientabide-agiria

#### Entzimak eskatzeko Europako Batzordearen gida

#### Gehigarriak ebaluatzeko eta datuak aurkezteko EFSAREN gidak

#### Elikadura-entzimak sailkatzeko gida

## LEGEDIA

**Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1334/2008 (EE) Araudia, 2008ko abenduaren 16koa, elikadura-entzimei buruzkoa; horrek aldatu egiten du Kontseiluaren 83/417/EEE Zuzentaraua, Kontseiluaren 1493/1999 (EE) Araudia, 2000/13/EE Zuzentaraua, Kontseiluaren 2001/112/EE Zuzentaraua eta 258/97 (EE) Araudia**

*Eguneratze data:  
2017/11/07*

#### **ELIKA**

. Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .

**berri@elika.eus**

Close

**Necessary**

Always Enabled